



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko otsailaren 29a

20. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du A-15 eta N-1 errepideen doakotasuna defendatzea eta mantentzea, eta Nafarroako Gobernua premiatzea Foru Komunitatearen interesak defenda ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da indargabetu dezan indar armatuek Errege Barden baliatzen duten entrenalekua defentsa nazionalerako interesgune deklaratzeko duen Errege Dekretua. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Ezkaba mendia interes publiko bereziko naturgune babestu bihurtzeko beharrezkoak diren hartu-eman, harreman eta hitzarmenei. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).
- Erabakia, klima aldaketari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia bat eratzeko. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak onetsia (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (10. or.).
- Galdera, Gobernuak zaharren eskubideak bermatzeko abian jarriko dituen politikei buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (11. or.).

- Galdera, jakiteko nortzuk izan daitezkeen Tuterako Ospitalean artatuak eta Aragoiko eta Nafarroako administrazioek lankidetzaz zerbitzuak ezartzeko izan dituzten elkarrizketei, Ana Figueras Castellano andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik ez dagoen hitzarmenik Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Barañaingo Auditorioaren artean, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri zehatz hartuko diren zahar-etxeetan sartzeko itxaron zerrendak murrizte aldera, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (14. or.).
- Galdera, teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutzarekin eta Nafarroako Rural Kutzarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenari buruzkoa, José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeko asmoa duela Las Cañas aintziratik gertu, M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak egina (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularraren kontratuaren egoerari buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak egina (17. or.).
- Galdera, sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (18. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (19. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko proiektua berregokitzearen kostuari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (19. or.).
- Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanen hasierari, epeei eta amaierari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera izatea. Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleak kontratuak hutsaltzeko prozesuak saiheste aldera, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroan musika ikasketen beharrezko erantzuteko organigrama egokitzeari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculum, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleentzako dagokionez, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian musikako goi mailako ikasketak ezartzeko, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (23. or.).
- Galdera, “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruzkoa, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (24. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea. Izangai onartu eta baztertu behin-behineko zerrenda (25. or.).
- Nafarroako Parlamentuko 2008. urterako lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (26. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraientza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2008ko otsailaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.-** Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proiektuaren izapidatzea zuzenekoa eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia Osoko Bilkuraren esku jartzea.

**2.-** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.-** Aipaturiko proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proiektua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen seigarren xedapen iragankorraren 2. idatz-zatia aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legean, II. tituluaren III. kapituluaren, lurraldearen antolamendurako tresna eskualdeko hirigintza arauak direla ezarri zen. Martxoaren 22ko 80/1999 Foru Dekretuaren bidez, behin betikoz onetsi ziren Iruñerriko eskualdeko hirigintza arauak, 10/1994 Foru Legeak indarra izan zuen bitartean onetsitako eskualdeko hirigintza arau bakarrak.

Nolanahi ere, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak indarra hartzeak aldaketa garrantzitsua eragin zuen lurralde antolamenduaren tresnen arautzean. Alde batetik, tresnen artetik lurraldearen antolamenduko jarraibideak eta eskualdeko hirigintza arauak kendu ziren, eta bestetik, tresna berriak sortu, hala nola, Nafarroako lurralde estrategia, lurraldearen antolamenduko planak eta lurralde ekintzako plan zuzentzaileak.

Horri dagokionez, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen Seigarren Xedapen Iragankorrek aurreikusten du eskualdeko hirigintza arauen indarraldia bost urtekoa izanen dela gehienez, deusetan galarazi gabe haien edukia lurraldearen antolamenduko planetan sartzea. Halere, foru lege horren seigarren xedapen gehigarriak sei urteko epea ezartzen du lurralde antolamenduko planak onesteko. Hortaz, aurreikusitako bi epeak legean bat ez datozenez, beharrezkoa da eskualdeko hirigintza arauen indarraldia luzatzea, eta, horretarako, 35/2002 Foru Legearen Seigarren

Xedapen Iragankorraren 2. idatz-zatiaren testua aldatu.

**Artikulu bakarra.** Eskualdeko hirigintza arauen indarraldia.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen Seigarren Xedapen Gehigarriaren 2. idatz-zatia aldatzen da, testu hau izateko:

“Eskualdeko hirigintza araeak, martxoaren 22ko 80/1999 Foru Dekretuaren bidez behin betikoz onetsitakoek, haien esparru geografikoa barne hartzen duen kasuan kasuko lurralde antolamenduko plana onetsi arte izanen dute indarra”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko.**

**NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita plan bat presta dezan Nafarroan dauden ikur frankistak 2008an kentzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Dagoeneko denok dakigunez, azken urte honetan lan interesgarri eta garrantzitsua egin dute erakunde publiko askok gerra zibileko eta frankismoko oroimen historikoa berreskuratze aldera eta garai hartako demokrazia aldeztarren erail zituzten guztien duintasunaren alde, lozorroan eta ezkutuan zegoen oroimena iratzarritz.

Halatan, Nafarroako Parlamentuak 2003ko martxoaren 10ean onetsi zuen adierazpenean frankismoaren sinboloak aipatu eta ondokoa esaten da hitzez hitz: "Esandakoaren ondorio gisa, Nafarroako erakundeek baliabideak jarri beharko dituzte askatasunaren aurkako elementu sinboli-

koak, denok gainditu nahi dugun iragan horren adierazle ere direnak, desagerrarazteko."

Diputatuen Kongresuak onetsitako oroimen historikoaren legeko 15. artikulua ere ondokoa ezarri zuen: "administrazio publikoek, beren esku-menak baliatuta, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte altxamendu militarra, gerra zibila eta diktaduraren errepresioa banaka nahiz taldeka goreste-ko armari, intsignia, plaka eta bestelako objektu eta aipamen oroigarriak ken daitezen. Neurri horien artean sartu ahalko da dirulaguntza publikoak kentzea"

Gizarte guztiek dute zeinek bere oroimena, bere talde-imaginarioa. Zenbaitetan, gertakari tragikoak arinkeriaz hartzen dituen bertsio ofizial interesdun batek betetzen du oroimen hori, baina beste batzuetan egungo garaietara egokitzen da oroimen edo bertsio ofizial hori, arazoak arazo iraganeko ahots kritikoetara ere hurbiltzeko.

Gure gizartean, frankismoaren ondotik besterik gabe itxi zen orrialde hura, gertatutako guztia gertatu ez balitz bezala. Espainiako gizarteak gerra zibila pairatu ez balu bezala, ez eta milaka fusilamendu ere, ezta diktadura odoltsu bat ere.

Askatasunen falta, agintekeria, erailketa, aurkari politikoa desagerraraztea eta abar dira halako sinboloek irudikatzen dituzten balioak, eta desagertu egin behar dute gure gizartetik.

Sinbolo eta idazkun horien presentzia beharrik gabeak kalte larria egiten die erregimen horren biktimen oroimenari, eta zentzu demokratiko oinarritzkoenaren aurkako eraso larria da.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du plan bat presta dezan 2008an Nafarroan dauden ikur frankistak kentzeko.

2. Halaber, Nafarroako Parlamentuak erakunde publiko nahiz pribatuei eskatzen die ikur frankistak ken ditzaten.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du A-15 eta N-1 errepedeen doakotasuna defendatzea eta mantentzea, eta Nafarroako Gobernuaren premiatzea Foru Komunitatearen interesak defenda ditzan.**

### *SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabakitzen baitu A-15 eta N-1 errepedeen doakotasuna defendatzea eta mantentzea, eta Nafarroako Gobernuaren premiatzea Foru Komunitatearen interesak defenda ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, parlamentu-talde horren izenean, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192., 193. eta 194. artikuluetan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuari eskatzen baitzaio erabaki bat har dezala, A-15 eta N-1 errepedean bidesaririk ez ezartzekoa.

Zioen azalpena

Aurreko egunotan komunikabideen bitartez jakin dugunez, Gipuzkoako Aldundiak bidesariak jartzeko asmoa omen du A-15 eta N-1 errepedean, Gipuzkoako zatietan betiere. Neurriok eragina izango lukete Nafarroan, errepede horiek Nafarroatik ere pasatzen baitira.

Eztabaida hori Gipuzkoara iritsi da, bestalde, Nafarroan urrats garrantzitsuak egiten ari direnean bidesariak kentzearen alde eta AP-15 doakoa izatearen alde; izan ere, lortu diren akordioekin bidesariak nabarmen jaitzi dira, doakotasuna betiere azken helburu. Horregatik, edozein neurri hartzen dela ere, ez badoa norabide horretan eta gure helburu bera ez badu lortu nahi, Nafarroako sozialistak erabat kontra egonen gara. Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Gipuzkoako ahaldunak A-15 eta N-1 errepedeek lurralde horretan ditzuten zatietan bidesariak ezarriko dituela iragarri duela eta, Nafarroako Parlamentuaren erabakia da A-15 eta N-1 errepedeen doakotasuna defendatzea eta mantentzea, eta Nafarroako Gobernuaren premiatzea Foru Komunitatearen interesak defenda ditzan, gai honek gaurkotasun eta interes erabatekoa baitu Nafarroako herritarrentzat.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

## **Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da indargabetu dezan indar armatuek Errege Bardean baliatzen duten entrenalekua defentsa nazionalerako interesgune deklaratzeko duen Errege Dekretua.**

### **NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernuak premiatzen baita indargabetu dezan indar armatuek Errege Bardean baliatzen duten entrenalekua defentsa nazionalerako interesgune deklaratzeko duen Errege Dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, eta 2008ko otsailaren 14ko Osoko Bilkuran jabeldura bat eztabaidatu ondoren, honako mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioen azalpena

Iragan 2008ko otsailaren 14an jabeldura bat eztabaidatu zen, Gobernuak Bardeako tiro poligonoaren gainean duen iritziari eta hura kentzeko aurreikusita dituen ekimenei buruzkoa.

Orain dela 56 urte baino gehiago entrenatzen da armada Bardeako tiro eta bombardaketa poligonoan, zeina diktaduraren garaian instalatu baitzen. Poligonoa luzaroan erabili zenez diktaduraren estalpean, ezkutuan gordetik gelditu da garai horretan Espainiako armadak nahiz bere aliatu iparramerikarrak erabili zuten armamentu motari buruzko datu oro.

Diktaduraren ondoko garaian ere, militarren sekretismoak ez dio mesederik egin horri buruzko gardentasunari, eta Espainiako gobernuek ez dute kontuan eduki Bardeako tiro poligonoa desegitearen alde ez gizarteak azaldu duen iritzia ez Nafarroako erakundeek hartu dituzten erabakiak ere.

Diputatuen Kongresuak, berriz, aho batez onetsi zuen erabaki bat, Gobernuak premiatzen zuena 2008a baino lehen tiro poligonoarentzako alternatiba bat bila zezan.

Nafarroako Gobernuak eta lehendakariak jendaurrean azaldu dute Bardeako tiro poligonoa desegitea nahi dutela, eta, Parlamentuan orain dela gutxi emandako erantzun batean, Lehendakariak eta Barne kontseilariak idatziz berretsi du desio horri eusten diotela. Nafarroako Parlamentuak, berriz, tiro poligonoa desegitearen aldeko erabakiak hartu izan ditu, eta Tuterako Udalak ere hainbat mozio onetsi ditu tiro poligonoa desegitearen alde, eta hitzarmen berriaren aurka azaltzeko erabakiak ere hartu izan ditu.

Gure ustez, beraz, Bardeako tiro poligonoa desegiteko funtsezko une batean gaude eta horregatik egiten dugu apustu, argi eta garbi egin ere, berebiziko garrantzia duen une honetan erakunde nahiz gizartearen aldetik presio egitearen alde.

Apustu egiten dugu Bardea natur erreserba izan dadin oro har, ingurumenaren aldetik berezia den eremu hori zaindu eta babesteko ahal dena eginez.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Legebiltzar honek berriz ere adierazten du bere desioa dela Bardeako tiro poligonoa desegitea 2008ko abenduan hitzarmen indarduna bukatutakoan.

2. Legebiltzar honek Espainiako Gobernuak premiatzen du indargabe dezan abenduaren 1eko 1943/2000 Errege Dekretua, "indar armatuek Nafarroako Bardean baliatzen duten entrenalekua defentsa nazionalerako interesgune deklaratzeko duena", Diputatuen Kongresuaren erabakia bete dadin laguntze aldera.

3. Legebiltzar honek Espainiako Gobernuak premiatzen du erabaki dezan Bardeako tiro poligonoa lekualdatzea edo deuseztatzea Bardeako Komunitatearen eta Defentsa Ministerioaren arteko hitzarmena bukatzeko falta den denbora tarterako, hala-ko moduz non aipatu hitzarmena bukatutakoan poligonoa desegin ahalko den.

4. Legebiltzar honek Defentsa Ministerioa premiatzen du tiro eta bonbardaketa poligonoaren eremua leheneratzeko plan bat taxutu eta egin dezan; planak ondokoak jasoko ditu gutxienez ere: lehergailu arriskutsu guztiak desaktibatzea,

milaka tona txatar erauztea eta lurrak deskontaminatzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehentasuna eman diezaien Ezkaba mendia interes publiko bereziko naturgune babestu bihurtzeko beharrezkoak diren hartu-eman, harreman eta hitzarmenei.**

### *NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehentasuna eman diezaien Ezkaba mendia interes publiko bereziko naturgune babestu bihurtzeko beharrezkoak diren hartu-eman, harreman eta hitzarmenei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **MOZIOAREN TESTUA**

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak:

Iruñerriko oso gai garrantzitsua bada ere, Ezkaba mendiaren inguruko jarduketek hogeit

daramatzate geldi, hogeit urtekoa da atzerapen instituzionala.

Aurreko legegintzaldian, Parlamentuak aho batez eskatu zion Gobernuari Ezkaba mendirako jarduketa-proiektu bat aurkez zezan, udalekin batera.

Gobernuak ez duenez bete Parlamentuaren erabakia, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehentasuna eman diezaien, Lurraldearen okupazioari buruzko estrategia eta ereduaren esparruan eta Lurraldearen antolamenduari buruzko planaren esparruan, beharrezkoak diren hartu-eman, harreman eta hitzarmenei, Ezkaba mendia interes publiko bereziko naturgune babestu bihurtzeko eta, halaber, josteta-erabilera izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du batzorde berezi bat sor dezan mugakide diren udalekin eta Nafarroako Gobernuarekin, Ezkaba mendiaren proiektu orokor bat egitera bideratutako azterketak eta behar diren zuzemenak egiteko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du zortzi hilabeteko epean Parlamentuan aurkez dezan erabaki honen ondoriozko proiektua.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro



## **Erabakia, klima aldatetari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia bat eratzeko.**

### *LANDA GARAPENERAKO ETA INGURUMENENKO BATZORDEAK ONETSIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 113. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin “Klima aldatetari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia bat eratzeko erabakia”. Nafarroako Parlamentuko Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordeak 2008ko otsailaren 12an hartu zuen erabaki hori. Hona erabakiaren testua:

**1.** Klima aldatetari buruzko azterlana eta proposamena jasoko dituen txosten bat egiteko ponentzia eratzea Batzordean.

**2.** Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu ponentziaren osaerari eta funtzionamenduari buruz.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen erregelamendu bidezko garapenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko 2005eko abendu-ko foru legeak dio arartekoa haurren eta nerabeen eskubideak babesteaz arduratuko dela eta, horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituela. Orain dela gutxi Legebiltzarrera heldu den txostenak –ararteko Aranda andreak egin du txostena, egungo ararteko Enériz jaunaren laguntzaz– argitu egiten du zertan den gaur egun Foru Komunitatean adingabearentzako laguntzaren auzia.

Adingabeen babesaren alorrean Nafarroako administrazio publikoek izandako jardunari buruzko txostenak ongi erakusten du, gure ustez, nola-ko seriotasun eta zorrotzasunez egin duen lan arartekoaren bulego osoak, eta hortaz bidezkoa da aitortzea horren garrantzia eta horren gainean lan egiteko Legebiltzarrari ematen digun aukera. Foru Komunitatean adingabe eta nerabeen babesa zertan den jakiteko erradiografia hau ikusita, esan daiteke Nafarroan badela, arartekoaren txostenak jasotzen duen bezala, arau-esparru oso bat, administrazio eskudunek, foru administrazioak eta udal administrazioak kasu, adingabeei babes publikoa emanen dietela bermatzen duena.

Nabarmendu beharra dago, ordea, bide luzea gelditzen dela adingabe eta nerabeen babesa eta laguntza osoa izan dadin, hori agintzen baitu araudi indardunak.

Legearen garapen eta aplikazioaren alderdi esanguratsuenetakoak dira Zailtasun sozialak dituzten haur eta gazteendako plana eta gizarte zerbitzuetako zentroetan haurrak eta nerabeak laguntzeko lantalde espezifikokoak sortzea. Halatan, planaren kronogramak aurreikusten zuen 2006rako eratuta egonen zirela haurrei eta nerabeei laguntza emateko behar ziren lantalde guztiak, baina errealitatea da 2006ko abenduan zerbitzu hori ez zela iristen ezta biztanleen %50era ere.

Lehen mailako esku-hartzeari eta prebentzioari dagokienez, arartekoaren txostenak dio, eta gu bat gatzat iradokizun horrekin, komeni dela sistema bat ezartzea, oinarrizko gizarte zerbitzuek lehen fase honetan egiten duten lana aldizka ebaluatzeko eta ikuskatzeko.

Haur eta gazteendako plana egin zutenetik, gabezia handia sumatzen da, adingabearen babesgabetasun egoera gertatuz gero familian esku hartzeko baliabideei dagokienez. Halatan,

oinarrizko gizarte zerbitzuen %72k diote ez dutela programa egituraturik edo baliabiderik babesgabetasun egoera bat gertatzen denean esku hartzeko.

Bukatzeko, arartekoaren eta haren lantaldearen txostenak hainbat gomendio ematen ditu; guk, berriz, Gobernuak konprometitu nahi dugu gomendio horiek abian jar ditzan, egutegi batekin eta behar adina ekonomia-baliabiderek, gomendio horiek guztiak bete ahal izan daitezzen.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko erregelamendua -helburu hori betetzeko giza baliabideak, baliabide materialak eta aurrekontu-baliabideak bermatuko dituen-, noiz garatuko da?

Noiz egingen dira legearen garapenaren aldizkako ebaluazioak adierazle fidagarriak baliatuta?

Noiz eratuko dira haurrak eta nerabeak laguntzeko lantaldeak -Nafarroako biztanleen ehuneko ehunera heltzeko zenbat lantalde behar den, horrenbeste- gizarte zerbitzuetako zentroetan?

Noiz beteko da lantalde horiek sortzeko aurreikusita dagoen gastua?

Gizarte Gaietarako Departamentuaren ustez, Hezkuntza eta Osasun departamentuek adingabe horiekin inplikatu behar al dute adingabeekin lan egiten duten entitate eta elkarteek eskatzen duten bezala?

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, Gobernuak zaharren eskubideak bermatzeko abian jarriko dituen politikei buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, Gobernuak zaharren eskubideak bermatzeko abian jarriko dituen politikei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

POR 29Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena

Arartekoak Nafarroako Parlamentura igorritako "Adin guztiendako gizartea. Zaharrek ere badute zeresanik" izeneko txostenean dio ezen herritarren eskubideak aldeztuko ez dela aski eskubideen aldeko adierazpen esplizituak-edo egitea edo behar bezala definituriko printzipioak eta helburu handiak dituzten legeak onestea. Horretaz gain beharrezkoa da eskubide horiek bermatuko dituzten tresna eragingarriak ezartzea.

Erabat ados gaude hausnarketa horrekin, eta uste dugunez Gobernu honek asko duela marketin eta publizitatetik, beharrezkotzat jotzen dugu jauzi kualitatibo bat ematea Nafarroan zaharren eskubideei dagokienez.

Gure ustez, gizarte zerbitzuei buruzko legea nahi baino mantsoago garatzen ari da, eta gizarte zerbitzuen zorroak, behin betikoa ezagutzen ez badugu ere, ez du talde politiko hau asetzen, alderdi garrantzitsuetan ausarta izan ordez kontserbadorea delako, eta zerbitzu eskaintzari dagozkionez, berriz, mugatua.

Une honetan bereziki interesatzen zaigu lehenengo arartekoak hasi eta oraingo arartekoaren taldeak bukatu duen lana "Zaharrek ere badute zeresanik" izeneko txostena\*, zeinean gure ustez kontuan hartu beharko liratekeen zenbait iradokizun garrantzitsu egiten diren.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

Etxeko laguntza zerbitzuek ez baitute bermatzen, noiz indartuko dira zaharra bere etxean edo ingurunean egoteko politikak?

Zer aurreikuspen darabil departamentuak Konstituzioaren 50. artikulua ezartzen duen esku-bidea -botere publikoek, aldzika eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko diete herritarrei zahartzaroan- modu eraginkor eta errealean bermatzeko?

Arartekoaren gomendioa da Osasun Departamentuak laguntza geriatrikoko osasun-zerbitzuak sendotu behar dituela. Gizarte Gaietarako Departamentua bat al dator gomendio horrekin?

Zer aurreikuspen darabil Gizarte Gaietarako Departamentuak Nafarroan laguntza integralko edo laguntza soziosanitarioko eredu bat izan dezagun?

Arartekoaren gomendioa da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legea berrikus-tea, zaharren mugikortasuna errazte aldera oztopoak kenduz, bizitza sozialean integratzeko hastapeneko pauso gisa. Gizarte Gaietarako Departamentua bat al dator gomendio horrekin?

Kontseilariaren ustez, komeni al da Nafarroan zaharren gaixotasunak ikertzeko erreferentziako zentro baten sorrera sustatzea?

Departamentuak ba al du asmorik Nafarroan zaharren telefono zerbitzua sortzeko?

Departamentuak ba al du asmorik zaharren bakardadearen aurkako programa sustatzeko, kontuan hartuta zaharra landa gunee batean, herri handi edo ertain batean dagoen?

Iruñean, 2008ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko nortzuk izan daitezkeen Tuterako Ospitalean artatuak eta Aragoiko eta Nafarroako administrazioek lankidetzaz zerbitzuak ezartzeko izan dituzten elkarrizketei.**

### *ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, jakiteko nortzuk izan daitezkeen Tuterako Ospitalean artatuak eta Aragoiko eta Nafarroako administrazioek lankidetzaz zerbitzuak ezartzeko izan dituzten elkarrizketei.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osasun Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galde-

ra hau egin du, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak ahoz erantzuteko:

Pentsan jasota dator Nafarroako eta Aragoiko gobernuetako osasun arloko ordezkariak bilerak egin dituztela, Tuterako Reina Sofía Ospitaleak aldameneko erkidegoari eman diezazkiokeen zerbitzuetan zenbait lankidetzaz-lerro ezartze aldera.

Antza denez, epe ertainerako agenda bat ezarri da, Tuterarekin muga egiten duten herrietako herritarrei Tuterako Ospitaleak gertutasunaren kariatara eman diezaiekeen laguntza medikoari buruzko zenbait akordio sinatze aldera.

Uste dugu komeni dela baliabideak egoki erabiltzea eta, ahal izanez gero, optimizatzea.

Une honetan, itxaron zerrendak arazo konpondugabe bat dira zenbait espezialitateetan Tuteran aldez, eta beharrezkoa da, kalitateko zerbitzua emanen bada, biztanleriaren hazkundea aurrerakustea. Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

1.- Egin al da azterlanik Tuterako Ospitalean artatzeko modukoa den populazioak duen adin-

piramideari buruz, ustez 14.500 pertsonakoa dena?

2.- Laguntza medikoa jasotzen duten pertsonak egoki artatze aldera, ba al dago asmorik osasun nahiz administrazio arloko langile kopurua handitzeko?

3.- Zertan dira eta zer konpromiso hartu dira Aragoiko eta Nafarroako administrazioek izandako elkarrizketetan?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

## **Galdera, jakiteko zergatik ez dagoen hitzarmenik Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Barañaingo Auditorioaren artean.**

### *PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik ez dagoen hitzarmenik Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren eta Barañaingo Auditorioaren artean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, Barañaingo Auditorioa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Parlamentuko Kultura eta Turismo Batzordean ahoz erantzuteko.

Zergatik da Barañaingo Auditorioa –Espainiako Antzerki eta Auditorio Sarearen barruan– bere erkidego autonomoko Kultura Departamentuarekin hitzarmen, akordio edo diru-laguntza bereziturik ez duen bakarra?

Iruñean, 2008ko otsailaren 21a

Foru parlamentario: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko zer neurri zehatz hartuko diren zahar-etxeetan sartzeko itxaron zerrendak murrizte aldera.**

*IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri zehatz hartuko diren zahar-etxeetan sartzeko itxaron zerrendak murrizte aldera.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Ioseba Eceolaza jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 181. artikulua eta hurrengo babesean, honako jabeldura hau aurkeztu dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaida dadin:

Gizartean gertatu diren aldaketak direla medio, eskakizun berriak direla medio, zaharrentzako

laguntzak gero eta garrantzi handiagoa du gure gizartean. Hori dela eta, administrazio publikoek lagundu behar dute hobetzen menpekotasun-egoeran bizi diren pertsonen autonomia-maila, bizikaltatea eta ematen zaien laguntza, bai eta familiak arindu ere. Adinekoek eskubidea dute laguntza modu integralean eta dituzten beharren arabera jasotzeko, eta eskubide horrek unibertsala izan behar luke.

Eta zerbitzu publikoa emateko bokazioz erantzun behar diogu handituz doan eskari horri. Halatan, gure ustez, Gizarte Gaietarako Departamentuak abian jarri behar ditu ahal diren neurri guztiak, zahar-etxeetako lekuen eskaintza publiko izan dadin haietan sartzeko eskarien arabera. Eskari hori erantzuteko gizarte-grina behar dugu.

Horregatik, parlamentu-talde honek jabeldura hau aurkeztu dio Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariari, adieraz eta argi dezan zer neurri zehatz hartuko diren zahar-etxeetan sartzeko itxaron zerrendak arintzeko Nafarroan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

## **Galdera, Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruzkoa.**

*AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroak Tolosa Okzitaniako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan izan duen parte-hartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutako jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Aurrekariak

Berriki, Tolosa Okzitaniako Turismo Azoka izan da, non Nafarroak lehenbizikoz parte hartu duen, eta Bordeleko Turismo Erakusketa ere izan da. Horri buruz, parlamentari honek hau jakin nahi du:

Nola baloratzen du departamentuak Nafarroak hala Tolosan nola Bordelen izaniko presentzia eta sustapenari begira bertan eginiko agerpena?

Aurrekoari dagokionez, zenbat kontaktu profesional egin dira Tolosan eta Bordelen?

Zer parte-hartze izan dute ekitaldi horietan Nafarroako partzuergoek eta elkarte profesionalak? Elkarte horien zerrenda zehatza nahi nuke.

Zer gastu eragin du Tolosako Turismo Azokan eta Bordeleko Turismo Erakusketan parte hartzeak? Kontzeptuen eta zerbitzuak eman dituzten enpresen azalpen zehatza nahi nuke, bai eta ekitaldi bakoitzeko gastuak zein kontusailen kargura egin diren ere.

Iruñean, 2008ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

## **Galdera, teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutxarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa.**

*JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, teleordainketa sistemak ezartzearekin eta Audenasak Nafarroako Kutxarekin eta Nafarroako Rural Kutxarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zenbait hedabidetan argitaratutako informazioen arabera, Audenasa enpresa publikoak abian

jarriko du hemendik gutxira teleordainketa sistema, eta lankidetzaren hitzarmenak sinatu ditu Nafarroako Kutxarekin eta Rural Kutxarekin, entitate horiek doan eskain ditzaten OBE gailu elektronikoa. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Pentsan argitaratutako informazioaren arabera, Audenasaren egungo txartela duten pertsonen deskontu berbera izanen dute sistema berriarekin, baldin eta Nafarroako Kutxak eta Rural Kutxak eskaintzen duten gailu berria instalatzen badute. Audenasaren txartela duten pertsonen deskontu hori bera izanen dute baldin eta beste entitate batek eskainitako OBE gailu elektronikoa instalatzen badute? Audenasak Nafarroako Kutxarekin eta Rural Kutxarekin sinatutako hitzarmenaren kopia osoa jaso nahi dugu.

b) Eskaini al zaie edo eskainiko al zaie halako hitzarmenik Foru Komunitatean lan egiten duten beste banku-erakundeei?

c) Baliorik gabe utzi dira beste autobide-enpresa batzuekiko akordioak, zeinen bidez AP-15 autobideko txartelak beste autobide batzuk ordaintzeko ere balio baitzuen. Zer arrazoi egon da horretarako?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa Imaz

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeko asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu.**

*M.<sup>a</sup> GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak ba al dakien Errioxako Gobernuak industrialde bat eraikitzeko asmoa duela Las Cañasko aintziratik gertu.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Ba al daki Nafarroako Gobernuak Errioxako Gobernu industrialde bat eraikitzen ari dela Las Cañasko aintziratik gertu, zeina natur erreserba deklaratu baitzen 1987an?

- Aztertu al ditu Nafarroako Gobernuak industrialde horrek ingurumen-arloan izan ditzakeen eraginak?

- Egin al du zuzemenik Errioxako Gobernuarekin jakiteko ingurumen-eraginaren arloko araudiak betetzen ari ote diren?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: M.<sup>a</sup> Gracia Iribarren Ribas



## **Galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularraren kontratuaren egoerari buruzkoa.**

*ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularraren kontratuaren egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun ditzan:

Zein egoeratan dago gaur egun Nafarroako Orkestra Sinfonikoko zuzendari titularraren lan-kontratua?

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak gaur egun duen zuzendari titularraren lan-kontratuak zein baldintza ditu?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

## **Galdera, sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruzkoa.**

*ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, sai zuriaren desagertzeko arrisku-egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurraldearen

Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak idatziz erantzuteko:

Orain dela gutxi, Doñanako parkeko biologoen txosten baten berri izan dugu, zeinetan kezkatuta azaltzen baitira hemezortzi urtetan saiak arian-arian desagertuz joan direlako. Hemezortzi urtetan, hain zuzen ere, 56 bikote izatetik 26 izatera igaro da populazioa. Talde ekologistek egoeraren berri eman dute eta Nafarroan ingurumena babesteko ardura duten administrazioei eskatu diete neurriak har ditzaten espezie horren desagertzea ekidite aldera.

Hori dela eta, galdera hauei erantzutea nahi dugu:

Ingurumen Departamentuak ba al du saia desagertzeko arriskuaren berri?

Espezie horretako zenbat bikote dagoela uste du departamentuak?

Departamentuak atzeman al du Bardeako beste espezie berekirik despopulatu edo desagertzeko arriskurik?

Zer neurri jarri nahi ditu abian Gobernuak, baldin eta arazoa detektatu badu, bai saiazen bai bestelako espezieen desagertzea gerarazteko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

---

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanen aurrekontuari eta amaierako kostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztzen dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Gaia: Musikaren Hiria

Kontuan izanik Musikaren Hiriaren hasierako aurrekontua 15 milioi eurokoa zela, parlamentari honek jakin nahi du zein izanen den obraren azken kostua eta, aurrekontu horretan igoera nabarmena gertatu baldin bada, zein kontzeptutan eta zein kontusailetan igo den hasierako proiektua. Zehaztu kontzeptu horiek, bai kantitateari bai xedeari dagokienez.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko lanak hasteko onetsitako aurrekontuaren zati baten xedeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Gaia: Musikaren Hiria

Obrak hasteko, 2 milioi euroko aurrekontua onetsi zen, eta horietatik 409.378,47 euro itxitura batean eta proiektua prestatzen gastatu ziren. Gainerakoa, 1.590.621,53 euro, ez dakigu zehatz-mehatz zertara bideratu zen, eta horregatik parlamentari honek ondoko galdera aurkeztu du:

Zertara bideratu da zenbateko hori? Zehaztu zenbateko hori zertan gastatu den.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko proiektua berregokitzearen kostuari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Musikaren Hiria eraikitzeko proiektua berregokitzearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Gaia: Musikaren Hiria

Zein izanen da kontseilariak Parlamentuan eginitako agerraldian azaldu zuen proiektuaren birmoldaketaren kostua?

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanen hasierari, epeei eta amaierari buruzkoa.**

*MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, Musikaren Hiria eraikitzeke lanen hasierari, epeei eta amaierari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Gaia: Musikaren Hiria

Aurreikuspenen arabera, zein egunetan hasiko dira obrak?

Aurreikuspenen arabera, zein epetan bukatuko dira obrak? Zehaztu Musikaren Hiriko egituren faseak.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera izatea.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko dituen saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera izatea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko ditu saihesteko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak eta Pablo Sarasate Erdi Mailako Kontserbatorioak irakasleak kontratatzeke zerrenda bera edukitzea?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeko prozesuak saiheste aldera.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer neurri hartuko dituen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorian lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeko prozesuak saiheste aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko ditu Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan lan egiten duten irakasleen kontratuak hutsaltzeko prozesuak saihesteko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartu behar dituen nazioarteko ikasle-trukeak sustatzeko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko ditu nazioarteko goi mailako musika-irakaskuntzaren arloan ikasle-trukeak sustatzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, Nafarroan musika ikasketen beharriaz erantzuteko organigrama egokitzeari buruzkoa.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan musika ikasketen beharriaz erantzuteko organigrama egokitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Gobernuaren ustez, Hezkuntza Departamentuak duen organigrama nahikoa al da gure erkidegoan musika ikasketen beharriaz egoki erantzuteko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

---

## **Galdera, jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculum.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroan noiz garatuko den musikako goi mailako ikasketen curriculum.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroan noiz garatuko da musikako goi mailako ikasketen curriculum?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko noiz izango duen Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Noiz izanen du Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko klaustroak beharrezkoa den egonkortasuna, irakasleen plantillari dagokionez?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak ezartzeko.**

*PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zer egin behar duen Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak ezartzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer egin behar du Hezkuntza Departamentuak Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioan musikako goi mailako ikasketak behin betikoz ezartzeko?

Iruñean, 2008ko otsailaren 20an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

## **Galdera, “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruzkoa.**

*AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **GALDERAREN TESTUA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Justiziaren zerbitzu publikoa herritarrentzako irisgarriagoa izan dadin bilatzen duen “Erregistro Zibila linean” izeneko programari buruz, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1. Zenbat eta zer udalek eskatu dute programari atxikitzea indarrean den bitartean?

2. Zertan da 2007rako eta 2008rako aurrekontuetan xede hori duen kontusaila?

3. Zenbat dirulaguntza edo eskari-finantzaketa onartu eta ukatu dira? Zer entitateri onartu eta ukatu zaie eskaria? Zein izan da zenbatekoa?

4. Zenbat hitzarmen sinatu dira? Zer entitate-kin sinatu dira?

5. Zer emaitza izan du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin xede horretarako sinatutako hitzarmenak?

6. Zenbat erregistro zibil delegatuk baliatu ahal izan dute INFOREG aplikazioa? Zenbatek ez? Zergatik? Zenbat eta zer udalek aurkeztu dituzte eskariak 2007an? Zein izan da emaitza?

7. Grabatu edo/eta digitalizatu al dira INFOREG aplikazioaren data baino lehenagoko erregistro liburuak? Hala bada, zehatz bitez tokiak nahiz lanen norainokoa.

Iruñean, 2008ko otsailaren 21ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea.**

**Izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda**

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrari izateko bi lanpostu huts –lanpostu horietako batek betekizun gisa du euskara jakitea– lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdira eskabideak aurkezteko epea bukatu da (deialdia 2008ko urtarrilaren 23ko 10. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2008ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

**ERABAKIA**

**Lehena.** Deialdiko 4. oinarriarekin bat, izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onestea.

Onartuak:

Armendariz Semberoiz, M<sup>a</sup> Asunción (Gaztelania)  
Berzal Fernández, María (Gaztelania)  
Borda Olagüe, Carmen (Gaztelania)  
Círez Rubio, Jon Karlos (Gaztelania)  
De la Llave Nuin, Olga (Gaztelania)  
García Zubizarreta, Carmen (Gaztelania)  
Jaurrieta Elcano, Teodoro (Gaztelania)  
Lafuente Goñi, Begoña (Gaztelania)  
Larrasoña Zunzarren, Raquel (Gaztelania)  
Mangado Cortes, María José (Gaztelania)

Mangado Fernández, M<sup>a</sup> Teresa (Gaztelania eta euskara)  
Martínez Cosgaya, M<sup>a</sup> Elena (Gaztelania)  
Rodrigo Jaso, M<sup>a</sup> Jesús (Gaztelania)  
Saldaña Zabalegui, Fernando (Gaztelania)  
Sanz Mutiloa, M<sup>a</sup> Pilar (Gaztelania)  
Sesma Vallés, Amaya (Gaztelania)  
Velasco Fleta, M<sup>a</sup> Carmen (Gaztelania)

Baztertuak:

Ontoria Del Cura, Eva (Gaztelania)

Ez duelako frotagu 2. oinarriko 1.c) atalean ezarritako baldintza betetzen duenik.

**Bigarrena.** Behin-behineko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondoko bost egun naturaletan, interesdunek onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendaren aurka egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu eta, kasua bada, egindako akatsak zuzendu ahalko dituzte.

**Hirugarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta iragarki-oholan argitaratzea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Nafarroako Parlamentuko 2008. urterako lan egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Langileen Batzordearen 2008ko otsailaren 21eko idatzia, zeinaren bidez eskatu baitu goizeko lanaldia ezar dadila Pazko Asterako eta martxoaren 17 eta 18rako.

Kontuan hartuta ezen 2008ko martxoaren 25etik 28ra bitarte ez dagoela aurreikusita Parlamentuko jarduerarik eta martxoaren 17an eta 18an aurreikusita dagoena goizez egingen dela, eta Nafarroako Parlamentuaren eta aipatu batzordearen arteko akordioaren 3.2 atalean ezarritakoarekin bat –akordioa 2002ko ekainaren 17an onetsi zen–, ondokoa ERABAKI DA:

**1.** Mahaiaren 2007ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitako lan egutegia aldatzea;


halatan, 2008ko martxoaren 17, 18, 25, 26, 27 eta 28ko lanaldia goizekoa izanen da, baina hori ez da eragozpen izanen, beharrezkoa baldin bada, Legebiltzarreko lana goizeko ordutegitik kanpo betetzeko behar diren langileek arratsaldean ere lan egin dezaten.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Erregistroaren ordutegia, Mahaiaren 2007ko abenduaren 27ko erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatzea; halatan, 2008ko martxoaren 17, 18, 25, 26, 27 eta 28an 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Langileen Batzordeari, Legelari Nagusiari eta Legebiltzarreko zerbitziburuei jakinaraztea.

Iruñean, 2008ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	